



**BERMEO UDALERRIKO TONPOI-ITSASERTZA INGURUKO
PAISAIAREN EKINTZA PLANA**

AGENTE PUBLIKO ETA PRIBATUEK NAHIZ HERRITARREK

PARTE HARTZEKO FASEA

PROZESUAREN MEMORIA

2018KO MAIATZA

EDUKIA

1.	EGIKARITZE LABURPENA.....	3
2.	AURREKARIAK ETA LAN ESPARRUA	6
2.1	Bermeoko Tonpoi inguruko Paisaiaren Ekintza Plana.....	6
2.2	Diagnostiko tekniko eta parte-hartzearen edukien egitura	7
3.	PROZESUAREN AZALPENA.....	8
3.1	Parte-hartze prozesuaren helburuak, metodologia, agenteak eta moduak.....	8
3.2	Parte-hartze prozesuaren komunikazioa	12
3.3	Parte-hartzearen adierazleak.....	14
4.	EMAITZAK: DIAGNOSTIKO PARTAIDETUA	19
4.1	Nortasuna.....	19
4.2	Erabilera eta mugikortasuna	23
4.3	Segurtasuna eta irisgarritasuna.....	24
4.4	Paisaiaren kalitatea	27
4.5	Espazio pribatua	28
5.	EMAITZAK: EKINTZA PLANERAKO PROPOSAMENAK.....	31
5.1	Atariko proposamenak.....	31
5.2	Proposamen lehenetsiak.....	34
6.	EBALUAZIOA ETA ONDORIOAK.....	35
6.1	Parte-hartzaileen ebaluazioa	35
6.2	Prozesuaren ondorioak eta balorazioa	37
7.	ERANSKINA: PLATAFORMA DIGITALEKO EKARPENAK, GALDERA IREKIAK	38

Parte-hartze prozesua LUR studio-k eta Createlli-k taxutu eta burutu dute, Paisaiaren Ekintza Planaren idazle Geotech-ekin elkarlanean, hain zuzen, Bermeoko Udalarentzat.



1. EGIKARITZE LABURPENA

Bermeo udalerriko TONPOI INGURUKO PAISAIAREN EKINTZA PLANAREN AGENTE PUBLIKO ETA PRIBATUEK ETA HERRITARREK PARTE HARTZEKO FASEaren emaitzak bildu ditu agiri honek.

1.1.1 Aurrekariak

Parte-hartze prozesua Bermeo udalerriko TONPOI INGURUKO PAISAIAREN EKINTZA PLANean kokatzen da. Paisaiaren Ekintza Plan horrek, Bermeoko iparraldean dagoen inguru hori leheneratu eta sustatzea ditu helburu; izan ere, inguru horrek, gaur egun andeatuta badago ere, ingurumen-, paisaia- eta aisia-ahalmen itzela du.

Paisaiaren Ekintza Planak hiru fase hauek ditu: lehenengoa, diagnostikoa egitean datza; bigarrena, agente publikoek eta pribatuek eta herritarrek parte hartzean, eta hirugarrena, helburuak eta ekintzak zehaztean. Testuinguru horretan, esandako agenteek parte hartzeko fasearen zeregina, diagnostiko teknikoaren egiaztatzea eta planaren helburuak eta ekintzak garatzen lagunduko duten ageriko proposamenak egitea da.


Horiek horrela, parte-hartze prozesuaren edukiak bost ardatz hauen inguruan antolatu dira: nortasuna, erabilera eta mugikortasuna, segurtasuna eta irisgarritasuna, paisaiaren kalitatea eta espazio pribatua. Ardatz horiek, hortaz, diagnostiko teknikoaren egiaztapena nahiz planaren ekintzak zehazten lagunduko duten proposamenak antolatu dituzte.

1.1.2 Prozesuaren azalpena

Parte-hartze prozesuak hiru helburu hauek dauzka: Paisaiaren Ekintza Planaren BERRI EMATEA, diagnostiko teknikoaren EGIAZTATZEA eta planaren helburuak eta ekintzak garatzen lagunduko duten proposamenak ADOSTEA.

Guztira, 123 herritarrek hartu dute parte zuzenean, hots, modu presentzialean, eta 78k, modu digitalean. Parte hartzeko modu bien artean, 140 lagun inguruk hartu dute parte, kontuan hartuta zuzenean parte hartu zutenen erdiak modu digitalean ere parte hartu zutela. Parte-hartze prozesuan bermeotarrek parte hartu dute, hala nola, inguru horretako auzokoei, erabiltzaileei eta bertako lursailen jabeek, gazteek, elkarrekin, teknikariek eta udaleko ordezkariak.

Parte-hartze presentziala (bi saio publiko egin ziren; lau saio, gazteekin) eta parte-hartze digitala (www.tonpoi-bermeo.eus, 2018ko martxoaren 15etik apirilaren 15era zabalik egon dena) elkartu ditu prozesuak.



Aldi berean, parte-hartzea jakinarazteko eta horretara deitzeko ekintzak egin dira, hain zuzen ere, prentsa-oharra eta prentsaurrekoa antolatu dira, kartelak eta liburuxkak banatu dira, prozesua udalaren webgune eta sare sozialen bidez jakinarazi da eta beste bide batzuen bitartez zabaldu.

1.1.3 DIAGNOSTIKO PARTAIDETUaren emaitzak

Parte-hartze digitaletik haxe ondorioztatu da: parte-hartzaile gehienek ustez, Tonpoi inguruak ingurumen-, paisaia- eta aisia-ahalmen handia du eta hura leheneratu eta garrantzitsutzat jo beharra dago. Parte-hartzaile gutxiagok ingurua –batez ere, ingurumena eta paisaia– andeatuta dagoela uste du. Gainerako gaiei dagokionez, hauetan datoz bat gehien parte-hartzaileak: inguruak paseatzeko duen berariazko ahalmena, bertako landaredia eta interes geologikodun tokiak leheneratzea eta horren balioa nabarmentzea eta seinaleztapena hobetzeko beharra. Eta alderdi hauetan datoz bat gutxiak: espazio pribatuari buruzkoak (itxiturak, eraikuntzak, baratzeak eta txakurrak).

Tonpoi inguruan jarduterakoan, gai hauek lehenetsi dira, lehenengo saio presentzialean parte hartu dutenen aburuz: inguruaren antolamendu orokorra eta segurtasuna eta irisgarritasuna. Nortasuna berreskuratzea –batez ere, paisaia- eta aisia-ahalmenari dagokionez– ere lehentasunezkoztat jotzen dute herritarrek, baita espazio pribatuan jarduteko beharra ere – lurzatiaren itxituretan batik bat–.

1.1.4 EKINTZA PLANERAKO PROPOSAMENEN emaitzak

Aurkitutako behar eta aukeretatik ageriko hainbat proposamen sortu da Ekintza Planarentzat, eta horiek S02 saioan eta gazteekin egindako saioetan landu ziren.

Guztira, bost ardatzen (nortasuna, erabilera eta mugikortasuna, segurtasuna eta irisgarritasuna, paisaiaren kalitatea eta espazio pribatua) inguruan eratutako hogeita hamar proposamen baino gehiago sortu ziren. Saio presentzialen arabera, paseatze erabilerari buruzkoak lehenetsi dira. Hain zuzen ere, Talatik Aritzatxuraino doan bidea, inguruaren erabilera publikoa, Talatik Talape kalaraino iristeko bidea eta “Castillo Roto”tik Aritzatxura joateko bidea berreskuratzea eta Tonpoi Txikin uretara jaisteko eskailerak prestatzea. Hori guztia, kalen eta tonpoien izaera lasaia iraunarazteko asmoz, ez baitira hondartzak eta ez baita hondartzak izaterik nahi.

1.1.5 Ebaluazioa eta ondorioak

Zuzenean edo modu presentzialean parte hartu dutenen % 87ren aburuz, egindako saioak baliagarriak izan dira Paisaiaren Ekintza Plana hobeto ulertzeko, eta prozesua gomendatzeko modukoa da.

Prozesuaren lehenengo helburua kontuan hartuta **(Paisaiaren Ekintza Plana idazteko prozesuaren BERRI EMATEA eta hori zabaltzea, eta herritarrei parte hartzera deitzea eta prozesuaren emaitzak jakinaraztea)**, herritar eta agente publiko eta pribatu gehienen ustez, proiektuak **hainbat ekintza** garatu ditu; horien artean nabarmengarrienak ikastetxeetan egindako saioak izan dira akaso, 101 parte-hartzaile izan direlako.

Hala eta guztiz ere, prozesua jakinarazteko ahalegin handia egin bada ere (kartel eta liburuxken edo sare sozialen bitartez, besteak beste), ahalegin hori **ez da nahikoa izan prozesuan herritar askok parte har dezaten (ez modu presentzialean, saio publikoetan, ez modu digitalean)**. Batzuetan gertatu ohi denez, askotarikoak izan omen dira zergatiak: gaiak ez duela jakin-min nahikorik sortu, komunikazioa trinkoagoa eta askotarikoagoa izan behar zela eta xede-publikoa, zabalagoa...

Prozesuaren bigarren helburuari dagokionez **(planaren diagnostiko teknikoa EGIAZTATZEA, eta ikuspegi kolektiboa emango duen benetako parte-hartze eraginkorra erraztea, “eremuaren gaineko pertzepzio soziala” eta “aukerak eta gatazkak” ataletan bereziki)**, esan beharra dago balorazioa oso ona izan dela. Prozesuari esker, **ekarpen-mordoa bildu da, saioen eta plataforma digitalaren bitartez, eta horien adostasun-maila egiaztatu da.**

Azkenik, hirugarren helburuari dagokionez **(Paisaiaren Ekintza Planaren kalitate-helburuak eta ekintzak zehaztu eta lehenesteari ikuspuntu kolektiboa ekarriko dioten proposamenak ADOSTEA)**, saio presentzialetan, publikoetan eta gazteekin egindakoetan, Tonpoi ingurua leheneratzeko beharrak, aukerak eta hobekuntzak ia berberak dira. Parte-hartze prozesuari esker, ikuspegi teknikoa inguruaren erabiltzaileen –adinekoak, gazteak edo inguru horretako lursaileen jabeak– esperientziazko ikuspegi batekin aberastu egin da.



2. AURREKARIAK ETA LAN ESPARRUA

2.1 Bermeoko Tonpoi inguruko Paisaiaren Ekintza Plana

Parte-hartze prozesua Bermeo udalerriko TONPOI INGURUKO PAISAIAREN EKINTZA PLANean kokatzen da. Paisaiaren Ekintza Planak, Bermeoko iparraldean dagoen inguru hori leheneratu eta sustatu nahi du; izan ere, inguru horrek, gaur egun andeatuta badago ere, ingurumen-, paisaia- eta aisia-ahalmen itzela du.

Paisaiaren Ekintza Planak hiru fase hauek ditu: lehenengoa, diagnostikoa egitean datza; bigarrena, agente publikoek eta pribatuek eta herritarrek parte hartzean, eta hirugarrena, helburuak eta ekintzak zehaztean.

Testuinguru horretan, esandako agenteek parte hartzeko fasearen zeregina, lehenik eta behin, diagnostiko teknikoa egiaztatzea da eta, bigarrenaz, planaren helburuak eta ekintzak garatzen laguntzeko ageriko proposamenak egitea.



Paisaiaren Ekintza Planaren faseak

Paisaiaren Ekintza Plana Bermeoko Udalak enkargatu zuen, eta hura idazteko Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren Sailburuordetzaren diru-laguntza lortu zen (2017ko abuztuaren 25eko ebazpena, 2017ko irailaren 8an EHAren 172. zenbakian argitaratu zena). Paisaiaren Ekintza Plana hiru enpresa hauek garatu zuten elkarrekin: Geotech (Planaren idazle nagusia, lehenengo eta hirugarren faseak) eta LUR studio, Createlli-rekin elkarlanean (bigarren fasea, parte-hartzea).



Paisaiaren Ekintza Planaren eremua (Diagnostiko Agiria)

2.2 Diagnostiko teknikoak eta parte-hartzearen edukien egitura

Diagnostiko teknikoak hauxe ondorioztatu du: Tonpoi inguruak ingurumen-, paisaia- eta aisia-ahalmen itzela du. Aisiarako eta gozamenerako eremua da, hots, ingurumenaz eta ohiturez (erromeriak) gozatzekoa, baina, gaur egun, abandonatu samarra dago eta baratze eta bizitegi-kokaleku ugari dago antolamendutik kanpo, eta horiek, askotan, espazio publikoa okupatzen dute. Bestalde, egungo bidezidor-sarea andeatua dago eta ez dago herriko gainerako bidexkekin lotuta; ondorioz, herritarrentzat kaskarra da eta ez da segurua. Azkenik, inguruko bizitegi-eraikinen fatxadek paisaia itsusten dute.

Testuinguru horretan, hortaz, parte-hartze prozesuan egiaztatu beharreko diagnostiko teknikoaren edukiak bost ardatz edo kategoriatan laburtu dira. Ardatz horiek diagnostiko teknikoaren egiaztapena eratu eta antolatzen dute, baita planaren ekintzak zehazten lagunduko duten proposamenak ere. Horra hor ardatzak:

1. NORTASUNA: ingurumen-, paisaia- eta aisia-ahalmenak.
2. ERABILERA ETA MUGIKORTASUNA: oinezkoentzako pasealekua, egoteko erabilera, bizizkletaz ibiltzea.
3. SEGURTASUNA ETA IRISGARRITASUNA: mendi-mazelak eta itsaslabarrak, argiztapena, bideak, seinaleztapena, hiri-altzariak.
4. PAISAIAREN KALITATEA: bistak, landaredia, fauna eta geologia.
5. ESPAZIO PRIBATUA: eraikinak, itxiturak, kokaguneak eta baratzeak, txakurrak.

Parte-hartze prozesuaren ardatzak

3. PROZESUAREN AZALPENA

3.1 Parte-hartze prozesuaren helburuak, metodologia, agenteak eta moduak

3.1.1 Parte-hartze prozesuaren helburuak

Herritarren eta agente publiko eta pribatuen parte-hartzea Paisaiaren Ekintza Planean sartu izanak, **hiru helburu hauek** lortu nahi ditu: **prozesuaren berri ematea, egiaztatzea eta adostea**, planaren idazketari eraginkortasunez ekarpenak egin ahal izateko.

- **Paisaiaren Ekintza Plana idazteko prozesuaren BERRI EMATEA eta hori zabaltzea, eta, horretarako, ahalik eta pertsona eta agente publiko eta pribaturik gehien eta desberdinenei parte hartzera deitzea eta planaren emaitzak jakinaraztea.**
- **Planaren diagnostiko teknikoa (2017ko azaroa) EGIAZTATZEA, eta benetako parte-hartze eraginkorra erraztea, ikuspegi kolektiboa ekartzeko, batez ere, “inguruari buruzko pertzepzio soziala” eta “aukerak eta gatazkak” ataletan.**
- **Paisaiaren Ekintza Planaren Kalitate-helburuak eta ekintzak zehaztu eta lehenesteari ikuspuntu kolektiboa ekarriko dioten proposamenak ADOSTEA, eta, eginkizun horretan, ikuspegi teknikoa ingurua erabiltzen duten edota horretan bizi direnen esperientziatzko ikuspegi batekin aberesatea.**

3.1.2 Parte hartzeko metodologia

Parte-hartze prozesuak elkarlaneko diseinuaren metodologia erabiltzen du. Diseinu hori bi ideia hauetan oinarritzen da: alde batetik, Paisaiaren Ekintza Planean **profil berriak** sartzea eta, bestetik, **helburu bera izanaren eta adostasun-maila kolektibo handiagoa eraikitze**ko ideia. Profil berriak, bermeotarrak dira, hain zuzen ere, Paisaiaren Ekintza Planaren inguruko etxebizitzaren eta lursailen jabeak edota erabiltzaileak eta agente sozial eta ekonomikoak; azken buruan, ondoriozko ekintza-planaren onuradunak izango direnak, eta plana egiteko prozesuan **“esperientzian adituak diren pertsonak”** delako zeregina dutenak. **Teknikariek**, pertsona horien esperientzia oinarri hartuta, parte-hartzaileek elkarrekin sortutako ideiak **bildu, bideratu eta gauzatzeko** ezagutza eta tresna egokiak ematen dituzte. Elkarlaneko diseinuaren metodologiaren funtsa, **helburu bat** eta prozesua eratuko duten **ardatz nagusi batzuk** jartzean datza, eta, horiek oinarri hartuta, lehenik, ardatz bakoitzari dagozkion **beharren eta aukeren** gainean lan egitea, **diagnostiko kolektiboa** egiteko eta, ondoren, **elkarlanean proposamenak** egiteko, betiere ahalik eta **adostasun kolektiborik** handiena lortzen. Proposamenek ardatz jakin baten beharrei erantzungo diete, eta, batzuetan, ardatz batzuei.

Segida metodologikoa: helburua– ardatz nagusiak – beharrak eta aukerak – proposamen kolektiboak


Horrela, parte-hartze prozesu horretan, Tonpoi ingurua leheneratzeko helburuaren ondoren, prozesua antolatzen duten ardatzak lehenago esandakoak dira: nortasuna, erabilera eta mugikortasuna, segurtasuna eta irisgarritasuna, paisaiaren kalitatea eta espazio pribatua. Prozesua –modu presentziala nahiz digitala–, diagnostiko tekniko/diagnostiko kolektiboa (beharrak eta aukerak) egiaztatzeko lehenengo etaparen bidez egituratzen da, eta, ondoren, proposamenak egiteko bigarren etaparen bidez.

3.1.3 Agente parte-hartzaileak

Parte-hartze prozesua bermeotar guztientzat egon da zabalik. Parte-hartzearen bitartez, prozesuak hauengandik bildu ditu ekarpenak:

1. Herritarrak, oro har (ez elkartuak)
2. Elkartze-ehuna eta Talako Andramariko auzokoen erkidegoak.
3. Gazteak (Bigarren Hezkuntzako ikasleak).
4. Personas propietarias en el ámbito del PAP
5. Personas técnicas municipales
6. Representantes municipales

Agente parte-hartzaileak



3.1.4 Parte hartzeko moduak

Ahalik eta jenderik gehien eta ezberdinenek parte har dezan, prozesuak parte-hartze presentziala eta birtuala elkartu ditu. Denbora-lerro batean, gertaera gogoangarri nagusiak laburtuko ditu eskema honek:

- (Denbora-lerroaren gainean) Parte-hartze presentziala, bi saio publikoren eskutik (S01 Informazioa, beharrak eta aukerak eta S02 Proposamenak), lau saio gazteekin, ikastetxeetan (beharrak, aukerak eta proposamenak, batera).
- (Denbora-lerroaren azpian) Parte-hartze digitala, prozesurako prestatu den plataforma digitalaren eskutik, hilabete batez.
- (Denbora-lerroaren gainean) Parte-hartzea jakinarazi eta deitzeko une nagusiak: prentsa-oharra eta prentsaurrekoa, kartelak, liburuxkak eta sare sozialak, besteak beste.
- (Azpian, grisez) Prozesua behar bezala garatzeko hiru etapak: prestatzea, parte hartzea eta ebaluatzea.

3.1.5 Parte-hartze presentziala

1. saio presentziala: Informazioa, beharrak eta aukerak

Saio presentzial horretara, Tonpoi inguruko erabiltzaileak, bertoko lursailen jabeak, teknikariak eta udaleko ordezkariak bertaratu ziren. Hasieran aurkezpen bat egin zen, Paisaiaren Ekintza Planaren, prozesuaren eta diagnostiko teknikitik ateratako edukien berri emateko. Alderdi horiek aurkeztu ondoren, taldean lan egin zen bost ardatzen (nortasuna, erabilera eta mugikortasuna, segurtasuna eta irisgarritasuna, paisaiaren kalitatea eta espazio pribatua) beharren eta aukeren gainean. Saioaren amaieran taldeek bateratze-lana egin zuten.

S01 saioa 2018ko martxoaren 15ean egin zen, Kultura Etxean, 18:30etik 20:00etara.



2. saio presentziala: Proposamenak

Lehenengo saioaren antzera, saio honetan Tonpoi inguruko erabiltzaileak, bertoko lursailen jabeak, teknikariak eta udaleko ordezkariak ere egon ziren. Saioa hasteko, Paisaiaren Ekintza Plana eta prozesua aurkeztu ziren, eta diagnostiko teknikoa eta aurreko saioaren emaitzak zehatzago azaldu ziren. Aurkezpenaren ostean, taldean lan egin zen berriro eremua leheneratzeko atariko proposamenen gainean. Saioaren amaieran taldeek bateratze-lana egin zuten.

S02 saioa 2018ko apirilaren 11n egin zen, Kultura Etxean, 18:30etik 20:00etara.

Saioak ikastetxeetan

Gazteengana iristeko helburuz, Bermeoko Bigarren Hezkuntzako hiru ikastetxeei deitu zitzairen. Horietako bik interesa agertu zuten eta, hortaz, lau saio presentzial egin ziren Bigarren Hezkuntzako ikasleekin –gehienak, Bermeon bizi direnak–. Eskola-ordu beteko saioetan, Paisaiaren Ekintza Plana, prozesua eta edukiak labur aurkeztu ziren eta, nagusiekin egin zen bezalaxe, taldean beharrak, aukerak eta proposamenak landu ziren. Eta bukatzeko, bateratze-lana egin zuten ikasleek.

Ikastetxeetako saioak 2018ko apirilaren 10ean egin ziren, Eleizalde Ikastolan, eta 2018ko apirilaren 11n, Sagrado Corazón Ikastetxean. Bi saioak, eskola-orduetan.

3.1.6 Plataforma digitala

Xede-publikoa

Bermeorekin eta Paisaiaren Ekintza Planarekin zerikusia duten pertsona guztientzat antolatu da parte-hartze birtuala: herritar ez-elkartuak, elkarteak eta Talako Andramari auzokoen erkidegoak, Paisaiaren Ekintza Planaren eremuaren erabiltzaileak eta jabeak, gazteak, teknikariak eta udaleko ordezkariak.

Parte-hartze digitala: modua eta iraupena

Citizen webgune plataformaren bidez gauzatu da parte-hartze digitala. Plataforma hori Createllik garatu du eta www.tonpoi-bermeo.eus webgunean egon da eskuragarri, hilabete betez, 2018ko martxoaren 15etik apirilaren 15era. Sarbidea erraza izan da –telefono adimendun, tableta eta ordenagailu batetik–, eta nabigazio-sistema, erabilerraza eta elebiduna.

Parte-hartzea: segmentazioa

Parte-hartzaileen profilak honela segmentatu dira:

- Adinaren arabera: <18, 18-30, 30-45, 45-65, >65.
- Sexuaren arabera.
- Agente-motaren arabera: herritarra, elkarte, gaztea, Paisaiaren Ekintza Planaren eremuko lursail edo eraikinen jabea, udaleko teknikaria eta ordezkari politikoa.
- Bizitokiaren arabera: Tonpoi eremuaren inguruetan, Bermeoko beste toki batean eta Bermeotik kanpo. Gainera, modu georreferentziatuan egin da, parte-hartzea mapa batean ikusi ahal izateko.

Edukien egitura, galdera-motak eta proposamenen zeregina

Parte-hartzaileen profila lortu ondoren, kontsulta 5 ardatzetan egituratu zen: nortasuna, erabilera eta mugikortasuna, segurtasuna eta irisgarritasuna, paisaiaren kalitatea eta espazio pribatua.

3 eta 5 item artekoak ziren ardatzak, baieztapen-formatua zuten, eta parte-hartzaileek horiekiko adostasun-maila adierazi behar zuten. Horrela, emaitzen kudeaketa errazagoa da eta adostasun-maila barretan ikus daiteke, eta horrek adostasun-maila handiagoa sortzen laguntzen du.


Gainera, proposamenen funtzioa prestatu da, parte-hartzaileek gainerako parte-hartzaileentzat ikusgarria den proposamena egin dezaten eta horren alde jarri ala ez eta horri laguntzea erabaki dezaten.

3.2 Parte-hartze prozesuaren komunikazioa

Komunikatzeko estrategiak bi helburu izan ditu:

- **Informatzea**, parte-hartze informatua bermatzeko.
- **Deitzea**, ahalik eta jenderik gehien eta ezberdinenek parte har dezan.

Taula erantsian materialak, tresnak eta komunikazio-bideak bildu dira. Parte-hartze prozesuan erabili den komunikazio-material guztia euskaraz egin da eta, batzuetan, ele bitan, euskaraz eta gaztelaniaz. Aldi berean, indarreko xedapen eta arauen arabera, hizkuntza ez sexista erabili da.




PARTE-HARTZE PROZESUAREN MATERIALAK, TRESNAK ETA KOMUNIKAZIO BIDEAK		
1	Prozesuaren irudia. “TONPOI INGURUKO PAISAIAREN EKINTZA PLANA” inguruaren atzealde-irudiaren gainean (Aritzatxu hondartzaren gunea).	1
2	Prensa-oharra eta udalaren webgunearen edukia: Prozesua abiarazteko prentsa-oharra eta modu birtualean eta presentzian parte hartzeko deialdia egin dira. Emaitzak zabaltzeko bigarren deialdia egitea aurreikusi da. Udalak txostena azter eta itzul zezan, gaztelaniaz idatzitakoa entregatzea aurreikusi bazen ere, Udalak eskatuta, euskaraz idatzitakoa eman zitzaion, azter zezan.	1 (2.a, aukerakoa)
3	Prensaurrekoa. Udalak prentsaurreko bat egin zuen 2018ko martxoaren 5ean parte-hartze prozesua iragartzeko.	1
4	Informazio-kartelak, modu presentzial eta digitalean parte hartzera deitzeko. A3.	60 unitate (20+40)
5	Informazio-liburuxkak, modu presentzial eta digitalean parte hartzera deitzeko. A5.	200 unitate
6	Whatsapp bidez deitzeko mezuak. 3 mezu, zabal zitezen: deialdiaren lehena lehenengo saio presentzialera; deialdiaren bigarrena parte-hartze digitalera eta deialdiaren hirugarrena bigarren saio presentzialera.	3
7	Parte-hartze birtualeko plataforma: proposamenen kontsulta eta foro birtuala, saio presentzialetan izena emateko modu gisa. www.tonpoi-bermeo.eus . Hilabete batez zabalik: 2018ko martxoaren 15etik apirilaren 15era.	1
8	Deialdi pertsonalizatua (mailing-a) hainbat agenteri (Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak), baita, modu digitalean parte hartu ondoren informatuta jarraitu nahi eta horretarako kontaktua eman zutenei ere. Udalak, modu osagarrian, elkarteei eta beste agente batzuei deitu zien.	Mailing-a 3 ikastetxeei
9	Aurkezpenak saio presentzialetarako, mintzagaiak hobeto uler zitezen eta parte-hartze informatua berma zedin.	2
10	Prozesuaren memoria, emaitzak itzuli eta zabaltzeko egikaritze-laburpen batez, Udalak egokitzen dituen bideren bitartez hedatzeko (on-line banaketa zuzena, prentsa-oharra, prentsaurrekoa edo jendaurreko aurkezpena, besteak beste).	1

3.3 Parte-hartzearen adierazleak

3.3.1 Parte-hartzaile kopurua eta parte-hartzaileak generoaren arabera

Modu presentzialean 123 lagunek parte hartu dute, eta modu digitalean, 78. Parte hartzeko modu bien artean, 140 lagun inguruk hartu du parte guztira, kontuan hartuta zuzenean parte hartu zutenen erdiak modu digitalean ere parte hartu zutela. Oro har, parte-hartzaileen % 61ek modu presentzialean egin du eta % 39k, modu digitalean, hein handi batean, Bigarren Hezkuntzako ikasleekiko saio presentzialengatik (101 gazte).

Generoaren arabera segmentazioari dagokionez, parte-hartzaileen % 53 emakumeak izan dira eta % 47, gizonak, xehetasun hauek kontuan hartuta: orokorrean eta parte-hartze digitalean, ehunekoa antzekoa eta ekitatibo samarra da bi sexuen artean; saio publikoetan (S01 eta S02), berriz, emakumeen ehunekoa txikiagoa da (% 38) eta gizonena, handiagoa (% 62). Hala eta guztiz ere, Bigarren Hezkuntzako gazteekin egindako saioetan alderantziz gertatu da, hots, % 58 neskak ziren eta % 42, mutilak.



Parte-hartzea generoaren arabera
(parte-harte presentzial eta digital guztiaren gainean)


	S01 saioa	S02 saioa	Gazteen saioak	PRESENTZIA LA GUZTIRA ¹	DIGITALA GUZTIRA	GUZTIZKO ² ZENBATETSIA
Zenbat lagun	12	14	101	123	78	140
Emakumeak (%)	% 42	% 36	% 57	% 54	% 51	% 53
Gizonak (%)	% 58	% 64	% 43	% 46	% 49	% 47

¹ Modu presentzialean parte hartu dutenen parte-hartzea behin bakarrik zenbatzen zaie saio batera baino gehiagotara bertaratu zirenei.


² Modu presentzialean parte hartu zutenen kopurua, modu presentzialean parte hartu zutenen erdiak modu digitalean ere egin zutela kontuan hartuta zenbatetsi da.

3.3.2 Parte-hartzaileak adinaren arabera


Gehien azaltzen den adin-tartea 18 urtetik beherakoena da, Bigarren Hezkuntzako ikasleekin egindako saioak direla eta. Adin-tarte hori alde batera utzita, parte-hartze orokorra Gauss-en kanpai forman geruzatzen da, eta gehien azaltzen den adin-tartea 30-45 urte artekoena da eta gutxien, 18-30 urte artekoena eta 65 urtetik gorakoena. Saio publikoetan, adina bisualki zenbatetsi da eta, parte hartze digitalean bezala, gehien azaldu da adin-tartea 30 eta 45 urte artekoena da.



Parte-hartzea adinaren arabera, prozesu orokorra (presentziala eta digitala)



Parte-hartzea adinaren arabera, saio publikoak




Parte-hartzea adinaren arabera, plataforma digitala


3.3.3 Parte-hartzaileak agente-motaren arabera

Prozesuaren jasotzaile ziren agente-mota guztiek parte hartu dute prozesuan, eta agente-mota pertsona gaztea da, Bigarren Hezkuntzako ikasleekin egindako saioak direla eta. Saio presentzialetara ez ziren gazteak bertaratu, baina inguruaren erabiltzaileak, lursaileen jabeak, teknikariak eta ordezkari politikoak bertaratu ziren.

Plataforma digitalean –zeinean erantzun bat baino gehiago hautatzeko aukera zegoen–, pertsonen % 91k herritar orokor bezala definitzen du bere burua. Modu gehigarrian, % 28k, gazte bezala; % 18k, Talako Andramariko elkarte edo auzokoen erkidego bezala; % 6k, Paisaiaren Ekintza Planaren barruko lursailaren jabe bezala, % 3k, teknikari bezala eta % 3k udaleko ordezkari bezala.




Parte-hartzea agente-motaren arabera, prozesu orokorra (presentziala eta digitala)



Parte-hartzea agente-motaren arabera (digitala)

3.3.4 Parte-hartzaileak bizitokiaren arabera

Parte-hartzaile gehienak (% 94) Bermeon bizi dira. Horien laurden inguru (% 23) Talako Andramari auzoan, % 71, Bermeoko beste auzo batzuetan eta % 6, Bermeotik kanpo.



Parte-hartzea bizitokiaren arabera

Parte-hartze georeferentziatuaren mapa. Bizitokia.





4. EMAITZAK: DIAGNOSTIKO PARTAIDETUA

Jarraian, lehenengo saio publikoan (S01), gazteekin egindako saioetan (SJ) eta plataforma digitalean (PD) lortutako emaitzak bilduko dira, hain zuzen, inguruko behar eta aukerei buruzkoak. Modu osagarrian, eranskinean plataforma digitaleko ekarpenak bilduko dira.

Parte-hartze digitaletik hau ondorioztatu da: adostasun-maila handia dago inguruaren hiru ahalmenei dagokionez (ingurumen-, paisaia- eta aisia-ahalmenak), baita ingurua leheneratu eta horren balioa azpimarratzeko beharrari dagokionez ere. Adostasun-maila txikiagoa da ingurua – batez ere, ingurumena eta paisaia– andeatuta dagoelako pertzepzioaz. Gainerako kontuei dagokionez, hauek dute adostasun-mailarik handiena: paseatzeko ahalmena, landaredia eta interes geologikodun guneak leheneratzea eta horien balioa azpimarratzea eta seinaleztapena hobetu beharra. Adostasun-mailarik txikiena honek du: espazio pribatua (itxiturak, eraikinak, baratzeak eta txakurrak).

Inguru horretan jarduteko, inguruaren antolamendu orokorra eta segurasuna eta irisgarritasuna lehenetsi dira (lehenengo saio presentzialean parte hartu dutenen aburuz). Nortasuna berreskuratzeak, batez ere, paisaia- eta aisia-ahalmenari dagokionez, lehentasun handia du, baita espazio pribatuan (batez ere, lurzatie itxituretan) jarduteko beharra ere.

4.1 Nortasuna

4.1.1 Ingurumen-ahalmena

INGURUMEN AHALMENA

Tonpoi inguruak ingurumen-ahalmen handia du.

Tonpoi inguruko ingurumena leheneratu eta horren balioa azpimarratu beharra dago.

Tonpoi inguruko ingurumen-balioak galdu egin dira.

Tonpoi inguruaren ingurumen-ahalmena, parke bezala baino naturagune bezala iraun eta leheneratzean datza.

Jarraian, modu digitalean parte hartu zutenek baieztapenen gainean adierazitako adostasun-maila erakutsiko da: erabat ados nago (berde ilunez), ados nago (berde argiz), berdin zait (horiz), ez nago ados (gorri argiz), ez nago batere ados (gorri ilunez). Horrela, barran berde ugari badago, horrek esan nahi du adostasun-maila handia dela; gorri ugari badago, desadostasun-maila handia dela, eta, barra gorriak eta berdeak antzeko luzera badute, iritzi ezberdinak daudela eta, hortaz, adostasun-maila txikia dela.

Barrek adostasun-maila erakusten dute Tonpoi inguruko ingurumen-ahalmenaren gainean, baita hori leheneratu eta horren balioa azpimarratzeko beharraren gainean ere. Haatik, adostasun-maila txikiagoa da inguruko ingurumen-balioak galdu direlako pertzepzioari dagokionez.

Tonpoi inguruak ingurumen-ahalmen handia du.



Tonpoi inguruko ingurumena leheneratu eta horren balioa azpimarratu beharra dago.



Tonpoi inguruko ingurumen-balioak galdu egin dira.



4.1.2 Paisaia-ahalmena

PAISAIA AHALMENA

Tonpoi inguruak paisaia-ahalmen handia du.

Ingurua hobeto integratu eta leheneratu behar da eta inguruko paisaiaren balioa nabarmendu.

Tonpoi inguruko paisaia andeatu egin da.

Nortasun handiko paisaia da, guztiok maitatua.

Tonpoi inguruko antzinako ohiturak (erromeriak) ezagutarazi behar dira.

Herritarrak ingurua zaintzearekiko sentikor bihurtu behar dira. Ez da ingurua aldatu behar, zaindu baizik. Ez dago kontzienziarik. Zikinkeriak eta axolagabekeriak zikinkeria eta axolagabekeria dakartzate.

Ingurua berrantolatu eta espazio publikoa berreskuratu beharra dago. Espazio pribatuak espazio publikoa okupatzen du, batez ere, itxituren bitartez.

Okupazioa, ondasunen erregistroa, erabilera eta erantzukizuna argitu behar dira: Udala, Kostaldean Zuzendaritza Nagusia, jabe pribatuak.

Ingurumen-ahalmenean bezalaxe, barrek adostasun-maila handia erakusten dute inguruko paisaiari eta ingurumenari dagokionez, baita hori integratu, leheneratu eta horren balioa azpimarratzeari dagokionez ere. Adostasun-maila txikiagoa da paisaia andeatuta dagoelako pertzepzioari dagokionez.

Tonpoi inguruak paisaia-ahalmen handia du.



Ingurua hobeto integratu eta leheneratu behar da eta inguruko paisaiaren balioa nabarmendu behar da.



Tonpoi inguruko paisaia andeatu egin da.



4.1.3 Aisiarako ahalmena

AISIARAKO AHALMENA

Tonpoi inguruak aisiarako ahalmen handia du, esate baterako, paseatzeko, erromeriak egiteko edo hiri-baratzeak jartzeko. Ahalmen handi hori nagusiek nahiz gazteek identifikatu dute.

Tonpoi inguruak aisiarako duen ahalmen handia berreskuratu beharra dago, baita horren balioa azpimarratu ere.

Tonpoi inguruaren gizarte-balioa galdu egin da eta, hortaz, inguruak aisiarako erreferente izateari utzi dio.

Toki lasaia izan behar du, atsedeen hartzeko aproposa.

Kirola egiteko aukera: zirkuitua egiteko, lehen antolatzen zen Cola Cao/Coca-Cola zirkuitua berreskuratzeko. Parkourra.

Turismorako aukera: karabana-aparkalekutik iristeko aukera.

Barrek adostasun-maila handia adierazten dute aisiarako ahalmenaz, baita ingurua aisiarako leheneratu eta horren balioa azpimarratzeaz. Adostasuna ez da hain handia gizarte-balioa galdu egin delako eta ingurua aisiarako erreferente izateari utzi diolako pertzepzioaz.

Tonpoi inguruak aisiarako ahalmen handia du, esate baterako, paseatzeko, erromeriak egiteko edo hiri-baratzeak jartzeko.



Tonpoi inguruak aisiarako duen ahalmen handia berreskuratu beharra dago, baita horren balioa azpimarratu ere.



Tonpoi inguruaren gizarte-balioa galdu egin da eta, hortaz, inguruak aisiarako erreferente izateari utzi dio.



4.2 Erabilera eta mugikortasuna

ERABILERA ETA MUGIKORTASUNA: BEHARRAK ETA AUKERAK

OINEZKOENTZAKO PASEALEKUA

Tonpoi inguruak paseatzeko ahalmen handia du. Asko erabiliko litzateke behar bezala egokituta edo prestatuta balego. Hirigunetik eta Talatik Aritzatxu hondartzaraino, baita Gaztelugatxeraino ere.

Ingurua prestatu beharra dago, familian, umeekin, joateko. Gaur egun, hortik paseatzea ez da atsegina.

Sare bat sortzeko aukera: kostaldetiko bideak hiri-inguruko bideekin lotzeko. Karabana-aparkalekutik kostaldera, hilerriko bidetik kostaldera.

BERTAN EGOTEKO ERABILERA

Tonpoi inguruak horretaz gozatzeko ahalmen handia du.

Zikin dago eta ez da segurua: garbitasuna eta segurtasuna hobetu behar dira. Alderdi horiekiko sentikor bihurtu behar da jendea.

“Castillo Roto”ko landa hobeto zaindu behar da.

Kirol-parkerako aukera (kirol anitz egiteko hiri-altzariak).

BIZIKLETAZ IBILTZEKO PASEALEKUA

Tonpoi inguruak bizikletaz ibiltzeko ahalmen handia du. Agian, barnealdetik, kostaldetik joateko sarbideren batekin.

Ingurutik paseatzeko ahalmenak adostasun-maila handia lortu du modu digitalean parte hartu zutenen artean.

Tonpoi inguruak paseatzeko ahalmen handia du.



Tonpoi inguruak horretaz gozatzeko duen ahalmenaren gainean adostasun-maila handia dago: parte-hartzaileen % 85ek ados edo erabat ados daudela adierazi zuen eta inork ez zuen ados ez zegola adierazi.

Tonpoi inguruak horretaz gozatzeko ahalmen handia du.



Tonpoi inguruak bertatik bizikletaz ibiltzeko duen ahalmenaz ez da adostasun-maila handirik izan, eta iritziak desberdinak izan dira: % 42 ados dago edo erabat ados, % 28k tarteko iritzia du, eta herena ez dago ados (% 19) edo ez dago batere ados (% 11).

Tonpoi inguruak bertatik bizikletaz ibiltzeko ahalmen handia du.



4.3 Segurtasuna eta irisgarritasuna

SEGURTASUNA ETA IRISGARRITASUNA: BEHARRAK ETA AUKERAK

MENDI MAZELAK ETA ITSASLABARRAK

Mendi-mazela/itsaslabarreko toki batzuetan segurtasunik ez egoteak inguruaz gozatzea eragozten du nolabait.

Toki "gatazkatsuenak" hobeto seinalaztatu behar dira; ibilbidea behar bezala seinalaztatuta balego, ez legoke itsaslabarretara hurbiltzeko arriskurik.

Ibilbideko toki bat, antza denez, eraustear dago. Aritzatzuko hondartzatik ikus daiteke zein arriskutsua den.

ARGIZTAPENA

Argirik ez egoteak inguruaz gozatzea eragozten du nolabait.

Ingurua argitu beharra dago.

Inguruaren erabilera luzatzeko (neguan, egunak laburragoak direnean, nahiz udan, gauzez), hori argitzeko aukera. Argiztapenak ez du argi-kutsadurarik sortu beharko eta ingurumena errespetatu beharko du.

BIDEAK ETA BEGIRATOKIAK

Bidexkak, bideak eta begiratokiak gaizki daude edo dago nahiko. Herriarekin lotuta egon ez izanak inguruaz gozatzea eragozten du.

Talatik Talaperako eskailerak berreskuratzeko aukera.

Tonpoi Txikin uretara jaisteko eskailerak prestatzeko aukera.

Hilerri ondoko bidea hobetu beharra dago.

SEINALEZTAPENA

Seinalerik ez dagoenez, zaila da nolabait inguruaz gozatzea.

Seinaleztapena hobetu beharra dago, bide-sarean nahiz toki arriskutsuetan, eta txakurrekin ibiltzeko orduak/arauak jarri behar dira (eta gainera ez dira betetzen). Interes geologikodun tokiak eta inguruko landaredia eta fauna hobetu behar dira.

HIRI ALTZARIAK

Hiri-altzaririk ez dagoenez (eserlekuak, paperontziak ...), zaila da inguruaz gozatzea.

Hiri-altzaririk jartzen badira, horiek ez dute inguruko paisaia itsustuko, horretan tokikotu beharko dira.

Plataforma digitalean erabilera eta segurtasunari buruz proposatu diren gaiez adostasun-maila handia dago (% 50, ados daude edo erabat ados daude). Adostasun-mailarik handiena bide eta hiri-altzariren gaineko kontuek dituzte (% 64), eta txikiagoa, seinaleztapenaren gainekoek (% 49).

Guztiak dute tarteko adostasun-maila, iritzi desberdinekin. Adostasun-mailarik txikiena, itsaslabar eta mendi-mazelek dute, eta puntu horren gainean iritzi ezberdinak daude.

Hori dela eta, aurreko taularen ondorioetan, “inguruaz gozatzea eragozten du” jarri beharrean “inguruaz gozatzea eragozten du nolabait” jarri da.

Mendi-mazela/itsaslabarreko toki batzuk seguruak ez direnez, zaila da inguruaz gozatzea.



Argirik ez dagoenez, zaila da inguruaz gozatzea.



Bidexkak, bideak eta begiratokiak gaizki daude edo dago nahiko. Herriarekin lotuta egon ez izanak inguruaz gozatzea eragozten du.



Seinalerik ez dagoenez, zaila da inguruaz gozatzea.



Hiri-altzaririk ez dagoenez (eserlekuak, paperontziak ...), zaila da inguruaz gozatzea.



4.4 Paisaiaren kalitatea

PAISAIAREN KALITATEA: BEHARRAK ETA AUKERAK

BISTAK

Paisaia-ahalmen handia dago –bista orokorrak, itsasoaren bistak, paisaiaren elementuak–, berdeguneetan nahiz itsaslabarraren inguruan.

LANDAREDIA

Bertoko landaredia leheneratu eta horren balioa nabarmendu beharra dago.

Jendea prestatu eta landarediarekiko sentikor bihurtzeko aukera: taulak eta jarduera hezigarriak.

FAUNA

Tonpoiko faunaren gaineko eragin txarra txikitu beharra dago: eraso zuzenak edo zeharkakoak, elikadura, eragozpenak, habitata aztoratzea...

Jendea prestatu eta faunarekiko sentikor bihurtzeko aukera: taulak eta jarduera hezigarriak.

GEOLOGIA

Ahalmen handia dago interes geologikodun tokien (Bermeoko zabalgunea eta Aritzatxuko hondartza) balioa nabarmentzeko.

Jendea prestatu eta geologiarekiko sentikor bihurtzeko aukera: taulak eta jarduera hezigarriak.

Oso adostasun-maila handia dago (% 85, ados daude edo erabat ados daude) plataforma digitalean paisaiaren kalitatearen gainean proposatu diren gaiez. Izan ere, bistei, landarediari eta geologia-ahalmenari buruzko gaietan, parte-hartzaile batek ere ez du batere ados ez dagoela adierazi.

Paisaia-ahalmen handia dago berdeguneetan nahiz itsaslabarraren inguruan.

● 1.0 % ● 2.3.77 % ● 3.5.66 % ● 4.28.3 % ● 5.62.26 %



Bertoko landaredia leheneratu eta horren balioa nabarmendu beharra dago.



Tonpoiko faunaren gaineko eragin txarra txikitu beharra dago: eraso zuzenak edo zeharkakoak, elikadura, eragozpenak, habitata aztoratzea...



Ahalmen handia dago interes geologikodun tokien (Bermeoko zabalgunea eta Aritzatzuko hondartza) balioa nabarmentzeko.



4.5 Espazio pribatua

ESPAZIO PRIBATUA: BEHARRAK ETA AUKERAK

ERAIKINAK

Gaur gungo eraikinek (txabolak ...) paisaia itsusten dute.

Tala eta Kantinako ingurua (horren izaera bitxia eta indarra) babestu beharra dago.

ITXITURAK

Gaur egungo lurzatien itxiturek paisaia itsusten dute.

Itxiturek ez dute bista eten behar, ez dira opakuak izan behar. Horretarako, lurzatien jabeekin harremanetan eta ados jarri beharko da.

BARATZEAK ETA KOKALEKUAK

Inguru horretan gero eta baratze eta kokaleku gehiago egoteak, ingurua pribatizatu izanaren sentrazioa sorrarazten du, eta horrek inguruaren gozamen publikoa

eragozten du.

Ingurua pribatua izanaren sentsazioa sorrarazi da. Hau argitu beharra dago: kostaldean badago, ez luke itsaso eta lehorraren arteko jabari publiko izan behar? Orduan, zergatik daude lursail pribatuak? Eta zergatik baimentzen zaie itxiturak jartzea?

>Paisaiaren Ekintza Planak alderdi horiek argitu eta zehaztu beharko ditu.

Baratze askotako hondakinak garbitu behar dira. Askotan, txabolak gaizki daude eta hondakin ugari dago, zaborteia ematen dute.

TXAKURRAK

Inguruan txakurak egoteak zarata dagoelako eta segurtasunik ez dagoelako sentsazioa sorrarazten du, eta horrela nekez goza daiteke inguruaz.

Txakurren zaunkak edota marraskak gogaikarriak dira.

Plataforma digitalean Tonpoi inguruko espazio pribatuaren gainean proposatu diren gaiez oso adostasun-maila handia dago (% 55, ados edo erabat ados). Adostasun-mailarik handiena baratzeei eta pribatizazio sentsazioari buruzko gaiak du (% 58, ados edo erabat ados).

Haatik, plataforma digitalean proposaturiko gai guztien artean, azken hauek dute adostasun-mailarik txikiena. Iritzi ezberdin gehien elkartzen dituen txakurren kontua da: parte-hartzaileen % 28 ez dago ados edo batere ados eta % 56, berriz, ados eta erabat ados. Hori dela eta, aurreko taulan esakuneak zehaztu edo argitu egin dira.

Gaur egungo eraikinek (txabolak ...) paisaia itsusten dute.



Gaur egungo lurzatien itxiturek paisaia itsusten dute.




Gero eta baratze eta kokaleku gehiago egoteak, ingurua pribatizatu delako sentsazioa sorrarazten du eta horrek inguruaren gozamen publikoa eragozten du.



Txakurak egoteak zarata eta segurtasunik eza sorrarazten du, eta egoera horrek inguruaz gozatzea eragozten du.





S01 saioaren emaitzen eskema: beharrak eta aukerak.

5. EMAITZAK: EKINTZA PLANERAKO PROPOSAMENAK

Aurkitutako behar eta aukerak ikusita, atariko hainbat proposamen sortu dira Ekintza Planarentzat. Proposamen horiek S02 saioan eta gazteekin egindako saioetan landu ziren.

Guztira hogeita hamar proposamen baino gehiago sortu dira bost ardatz hauen inguruan: nortasuna, erabilera eta mugikortasuna, segurtasuna eta irisgarritasuna, paisaiaren kalitatea eta espazio pribatua. Proposamen lehenetsiak paseatzeko erabilerari buruzkoak dira, S01 saio publikoaren eta gazteekin egindako saioen arabera. Hain zuzen ere, toki hauek berreskuratzeko: Talatik Aritzatxura doan bidea, inguruaren erabilera publikoa, Talatik Talapeko kalara iristeko bidea, "Castillo Roto"tik Aritzatxura doan bidea eta Tonpoi Txikin uretara jaisteko eskailerak. Hori guztia, kalen eta tonpoien izaera lasaiari eutsiz, ez baitira hondartzak eta ez baitago horiek hondartzak izateko nahirik.

5.1 Atariko proposamenak

1	NORTASUNHA	INGURUMEN AHALMENA	1.1	Inguruaren gaineko ingurumen-hezkuntza.
		PAISAIA AHALMENA	1.2	TalakoAndra Mari auzoan gaikako horma-irudiak jartzea.
			1.3	Begiratokiak eta talaiak berreskuratzea.
		AISIARAKO AHALMENA	1.4	Tonpoira erromeria berriz eramatea.
2	ERABILERA ETA MUGIKORTASUNA	OINEZKOENTZAKO PASEALEKUA	2.1	Talatik Talapeko kalara iristeko eskailerak berreskuratzea, hain zuzen, Kantina ondoko mendi-mazelan. Kostua handia da, inguru horretan lur-jausiak egoteko arriskua dago eta zalantzarria da Kostaldeko Zuzendaritza Nagusiak baimena emango ote duen. Parte-hartzaileak ados daude, baina bideragarritasun-azterketa tekniko-ekonomikoa egin beharko da, inguru horretan olatu asko dagoelako.
			2.2	Tonpoi Txikira iristeko bidea hobetzea: zabalago egitea, bide-zorua hobetzea (harri gehiegi, batez ere, adinkoentzat).
			2.3	Paisaia- eta ingurumen-ibilbidea sortzea itsaslabarretatik, ongi seinalizatua, Talatik Aritzatxuraino. Bidea garbitu eta zabalago egitea.

		Ibilbiderako lurzorua eskuratzea eta egungo bide eta ibilbideekin lotzea.
		2.4 Itsaslabarretako zortasun-lurzatietan erabilera publikoa berreskuratzea.
		2.5 Autokarabana-aparkalekutik tonpoietara (Tonpoi Handi eta Tonpoi Txiki) doan bidea prestatzea. Zuhaiztia.
		2.6 Lotura zuzenak hilerriarekiko paralelo den kaletik kostalderaino. Hilerriarekiko paralelo den kalea oinezko eta txirridularientzat atsegin egitea. Eta hortik abiatuta, oinezkoentzako sarea sortzea kostaldeko itsaslabarretaraino.
		2.7 "Castillo Roto"tik Aritzatxuraino doan bidea berreskuratzea. Bidea zabalago egitea.
BERTAN EGOTEKO ERABILERA	2.8	Kostalde gainean egoteko tokiak: Tala, tonpoien arteko berdeguna, landa. Toki jakin batzuetan begiratokiak jartzea. Piknik-gune edo askaldegiren bat sortzea.
	2.9	Tonpoi Txikin uretara jaisteko eskailerak jartzea, jendea bainatzeko, eta bidea hobetzea.
	2.10	Kalen izaera lasaiari eustea, hots, "txoko ezkutuak" izan daitezen, seguruak eta zainduak.
	2.11	Bidegorria, Aritzatxu hondartzaraino. Hilerriaren iparraldetik joango litzateke, Aritzatxuraino. Aritzatxun, bizikleta-aparkalekua.
BERTATIK BIZIKLETAZ IBILTZEA	2.12	Hiri-baratzeak, inguruko erabilera publiko berri gisa, eta erabilera hori eta itxituretan erabiliko diren materialak arautuko duen arautegia.
HIRI BARATZEAK	2.13	Txakurrak aske ibil daitezen tokia sortzea: orduak eta seinaleak jartzea.
TXAKURRAK PASEATZEKO TOKIA		
3	SEGURTASUNA	
	ETA	
	IRISGARRITASUNA	
	MENDI MAZELAK / ITSASLABARRAK	3.1 Toki arriskutsuetan seinaleak jartzea, batez ere, Aritzatxutik hurbil dauden bi tokitan (horietan eskudela bat ere jarri beharko da).
	ARGIZTAPENA	3.2 Segurtasuna hobetu beharreko tokietan argiak jartzea, baina paisaian eta inguruan argi-kutsadurarik sortu gabe. Esate baterako, bidea erakusteko lurrean jartzen diren luminariak jartzea.
	BIDEAK	3.3 Errazago iristeko, bideak prestatzea. Tonpoien arteko sarbidea hobetzea.
	SEINALEAK JARTZEA	3.4 Ingurua hobeto ezagut dadin, seinaleak jartzea: flora, fauna, toponimia, Talako horma-irudiak azaltzeko taulak... Eta toki arriskutsuez (itsaslabarrak) ohartarazteko seinaleak ere, betiere inguruaren izaera naturalari eutsiz. Ibilbidearen eta paisaia-interesa duten tokien hiri-seinaleztapena.

4	PAISAIAREN KALITATEA	HIRI ALTZARIAK	3.5	Toki jakinetan hiri-altzariak jartzea: paperontziak, eserlekuak, iturriren bat... Betiere inguruaren izaera naturalari eutsiz.
			3.6	Paperontziak: beste batzuk jartzea eta jendea garbitasunarekiko sentikor bihurtzea, paperontzien mantentzea eta kudeaketa errazteko.
		(Oro har)	4.1	Bermeoko HAPOn barruan erabilerak aldatzea, hain zuzen Hiri Paisaiaren Babesa kategoriara.
			4.2	Paisaia integratzeko azterketak eskatzea inguruan garatuko diren jardueretarako.
		BISTAK	4.3	Inguruaren balioa nabarmentzeko antolamendu- eta kudeaketa-neurriak: toki batzuetan begiratokiak jartzea, hala nola: 1- Aritzatxura iristen, itsasoari begira, interes geologikodun ingurua eta Aritzatxu atzealdean; 2 – Begiratokia Tonpoi Txikin.
		LANDAREDIA	4.4	Fauna eta flora leheneratu, mantendu eta babesteko neurriak: inguruko landare- eta fauna-espezien inbentarioa egitea eta horien balorea azpimarratzea, toki estrategikoetan informazio- taulak jarritz.
		FAUNA	4.5	Udaleko beste plan batzuekin bat egitea, esaterako, Bermeoko Alde Zaharraren Plan Bereziarekin.
		GEOLOGIA	4.6	Interes geologikodun inguruan ingurumen- hezkuntzari buruzko proiektua taxutzea.
		ERAIKINAK	5.1	Eraikinen presentzia arautzea, inguruaren itxura hobetzeko.
		ITXITURAK	5.2	Itxitura opakuak talaiei eta balea-arrantzari buruzko horma-irudiez apaintzea: lehiaketa bidez dinamiza daiteke. Itxitura horien ordeztu landareak edo itxitura argiakoak jartzea. Itxituren eta materialen altuera arautzea. Batasuna eta espazio publikoarekiko adeitasuna.
5	ESPazio PRIBATUA		5.3	Itxiturak arautzea, inguruaren itxura hobetzeko. Egungo itxituren eta inguraren ingurumen- kalitatearentzat egokiak ez diren elementuen paisaia-integratioko neurriak hartzea, esaterako, saneamendua.
		KOKALEKUAK ETA BARATZEAK	5.4	Lurzoru pribatuko baratzeen erabilera eta horietan erabili beharreko materialak arautzea, zaborte- gien itxurarik izan ez dezaten, batez ere, itsaslabarren ondoko onibarretan, zeinetan tresnak edo eraikinak espazio publikora eror daitezkeen. Inguruko egungo baratzeak, heskaiak, hormak eta bideak aratu- ko dituen ordenantza idatzi eta onestea.
			5.5	Egungo bidearen ezpondetako aldi baterako zaborte- giak kudeatzea.
		TXAKURRAK	5.6	Txakurren presentzia arautzea, zaun- kek eragindako zarata ekiditeko.



Gazteekin egindako saioen proposamenei buruzko taulak.

5.2 Proposamen lehenetsiak

Gehien lehenetsi diren proposamenak, saio presentzialen arabera (S02 saio publikoa eta gazteekin egindako saioak), paseatzeko erabilerari buruzkoak dira; ondoren, inguruan egoteko erabilerari buruzkoak, hain zuzen ere, Talatik Aritzatxuraino doan bidea, inguruaren erabilera publikoa, Talatik Talapeko kalara iristeko bidea eta "Castillo Roto"tik Aritzatxura doan bidea berreskuratzeak. Inguruan egoteko erabileraren barruan, proposamen hauek nabarmendu dira: Tonpoi Txikin uretara jaisteko eskailerak prestatzea eta kalen eta tonpoien izaera lasaia (ez dira hondartzak, eta ez dago hondartzak izateko nahairik).

Espazio pribatuari dagokionez, proposamen hau nabarmendu da: lurzoru pribatuko baratzeen erabilera eta horietan erabiltzeko materialak arautzea, batez ere, zabortegien itxurarik izan ez dezaten. Paisaiaren kalitateari dagokionez, hauek dira proposamen nagusiak: inguruko landaredia eta faunaren inbentarioa egitea, eta horien gaineko seinaleak jartzea, eta interes geologikodun inguruan ingurumen-proiektua taxutzea. Deigarria da "segurtasuna eta irisgarritasuna" ardatzeko proposamen bat ere ez lehenetsia izatea.

Proposamenei lehentasuna emateko panela, S02 saio publikoa. Emaizak gazteekin egindako saioen emaitzekin bat datoz.

ONPOI INGURUKO AISAIAREN EKINTZA PLANA

ARTE - HARTZE PROZESUA

LEHENENGO PROPOSAMENAK- LEHENTASUNA EMATEKO PANELA

01 NORTASUNA

INGURUMEN ARLOKO AUKERAK

PAISAIAREN INDARRA

ASIAKDIRAKO AUKERAK

02 ERABILERA ETA MUGIKORTASUNA

IBILALDIAK EGITEKO AUKERA

- Talatik Talaperaino sarbidea
- Tonpoi inguruko kostaldeko ibilbidea, Talatik Aritzatxuraino
- Erabil publikoa berreskuratu
- Karabanako aparkalekutik Tonpoirano bidea hobetu
- Kanposanturen bidea hobetu eta hortik kostaldera ibilbideak sortu
- "Castillo Roto"-tik Aritzatxuraino bidea berreskuratu

EGOTEKO AUKERA

- Begiratokiak eta egoteko lekuak: Tala, berdeguneak, "kanpa"
- Tonpoi txikian, uretara jaisteko eskilarrak
- Giro goxoa eta estua mantendu (ez dira hondartzak)

TXIRRINDUZ IBILALDIAK EGITEKO AUKERA

- Bermeotik Aritzatxuraino bidegorria

HIRI ORTUAK JARTZEKO AUKERA

- Hiri ortuak, publikoak eta aratuak

03 SEGURTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

- MENDI-MAGAL / ITSALABARRAK. Seinaleztatu.
- ARGITAPENA. Jarri, baina ahalik eta gutxien, hobeto.
- BIDEAK ETA BEGIRATOKIAK. Sortu eta egokitu.
- SEINALIZAZIOA. Jarri kartelak, eremua hobeto ulertzeko eta erabiltzeko, ibilbideak azaltzeko...
- HIRI-ALTZARIA. Jarri, baina ahalik eta gutxien, hobeto. Giro naturala mantendu.

04 PAISAIAREN KALITEA

- IKUSTEAK. Begiratoki - sarea sortu.
- BEGETAZIOA + FAUNA. Inbentarioa egin, guneko begetazioa eta fauna bilduz. Seinaleztatu.
- GEOLOGIA. Ingurumen hezkuntza proiektua sortu. Seinaleztatu.

05 ESPAZIO PRIBATUA

- ERAIKINAK, ITXIERAK, BARATZAK ETA ASENTAMENDUAK.
 - Aratu guneko estetika hobetzeko, batez ere hondakindegia dirudienak. P.O.P.O., PRUGA
 - Muralak edo landareak jarri.
- TXAKURRAK. Aratu txakurren egotea, zaunkari dagokion zarata ekiditzeko.

BESTE BATZUK...

6. EBALUAZIOA ETA ONDORIOAK

6.1 Parte-hartzaileen ebaluazioa

Modu presentzialean parte hartu dutenen % 87ren aburuz, saioak baliagarriak izan dira Paisaiaren Ekintza Plana hobeto ulertzeko, eta prozesua gomendatzeko modukoa da.

Bestetik, parte-hartzaileen % 100en aburuz, komunikazioa errespetuzkoa izan da. Eta, azkenik, parte-hartzaileen % 63ren ustez, bideratzaile edo aurkezleen azalpenak argiak izan dira eta horiei erraz ulertu zaie; % 37ren aburuz, hala-nola.

Ebaluatutako alderdi batek ere ez du iritzi txarrik jaso.

Jarraian, 2 saioetan bildutako 16 ebaluazioen emaitzak adieraziko dira:

Saio hau baliagarria iruditu zait Paisaiaren Ekintza Plana hobeto ulertzeko.

Ados	Erdizka	Desados
% 87	% 13	% 0

Entzuleek argi eta erraz ulertzeko moduan mintzatu dira aurkezleak.

Ados	Erdizka	Desados
% 63	% 37	% 0

Parte-hartzaileak errespetuz mintzatu dira.

Ados	Erdizka	Desados
% 100%	% 0	% 0

Herritarrek parte hartzeko prozesu-mota hau gomendatuko nuke.

Ados	Erdizka	Desados
% 87	% 13	% 0

Mesedez, adierazi zure ustez hobetzen lagunduko digun edozein ohar.
(Ekarpenak gaien arabera multzokatu dira)

- **Parte-hartzea:**
 - *“Ambiente ona egon da eta pozik!”*
- **Komunikazioa eta informazioa:**
 - *“Deialdiaren indarra handitzeko, jende gehiagori deitzea”.*

6.2 Prozesuaren ondorioak eta balorazioa

Prozesuaren lehenengo helburua kontuan hartuta (**Paisaiaren Ekintza Plana idazteko prozesuaren BERRI EMATEA eta hori zabaltzea, eta, horretarako, herritarrei parte hartzera deitzea eta prozesuaren emaitzak ahalik eta jende eta agente publiko eta pribaturik gehien eta ezberdinenei jakinaraztea**), proiektuak **hainbat ekintza** garatu ditu, eta horien artean nabarmengarriena ikastetxeetan egindako saioak izan dira akaso, 101 parte-hartzaile izan direlako.

Hala eta guztiz ere, prozesua jakinarazteko ahalegin handia egin bada ere (kartel eta liburuxka edo sare sozialen bitartez, besteak beste), hori **ez da nahikoa izan prozesuan herritar askok parte har dezaten (ez modu presentzialean, saio publikoetan, ez modu digitalean)**. Batzuetan gertatu ohi denez, askotarikoak izan omen dira zergatiak: gaiak ez duela jakin-min nahikorik sortu, komunikazioa trinkoagoa eta askotarikoagoa izan behar zela eta xede-publikoa, zabalagoa...

Prozesuaren bigarren helburuari dagokionez (**planaren diagnostiko teknikoa EGIAZTATZEA, eta ikuspegi kolektiboa emango duen benetako parte-hartze eraginkorra erraztea, “eremuaren pertzepzio soziala” eta “aukerak eta gatazkak” ataletan bereziki**), esan beharra dago balorazioa oso ona izan dela. Prozesuari esker, **ekarpen-mordoa bildu da, saioen eta plataforma digitalaren bitartez, eta horien adostasun-maila egiaztatu da.**

Azkenik, hirugarren helburuari dagokionez (**Paisaiaren Ekintza Planaren kalitate-helburuak eta ekintzak zehaztu eta lehenesteari ikuspuntu kolektiboa ekarriko dioten proposamenak ADOSTEA**), saio presentzialetan, publikoetan eta gazteekin egindakoetan, Tonpoi ingurua leheneratzeko beharrak, aukerak eta hobekuntzak ia berberak dira. Parte-hartze prozesuari esker, ikuspegi teknikoa, inguruaren erabiltzaileen –adinekoak, gazteak edo inguru horretako lursaileen jabeak– esperientziazko ikuspegi batekin aberastu egin da.

7. ERANSKINA: PLATAFORMA DIGITALEKO EKARPENAK, GALDERA IREKIAK

NORTASUNA

Bururatzen al zaizu bestelako erabilerarik inguruaren nortasuna bultzatzeko?

Espazio publikoa arautzea

- *Huertos urbanos en toda la zona con unas normativas que indique que materiales se pueden utilizar.*
- *Lo que ha fastidiado el entorno del Tonpon es la cantidad de huertas y construcciones ilegales que se ha permitido construir durante tantos años.*
- *Lur publikoaren gainean erabilera pribatua egiten duten baratzeak, txabolak.... herriak berreskuratu behar ditu.*
- *Tonpoi inguruan dagozan txabola "ilegalak" handik kentzea.*
- *Tonpoiko jabetza pribatuetan (baratzetan eta), ustez tresneria-erantzat eta izan beharko liratekeen txabola-eraikinen tamaina eta egitura gehiago kontrolatzea.*
- *Un uso racional del suelo; la gente ha hecho lo que ha querido durante años; un hueco libre, pongo mi valla y ya tengo huerta si tengo perros y vivo en la Tala el Tonpon es mi Kakalelu personal y suma y sigue una pena que un espacio tan chulo esté tan degradado por la inacción municipal.*

Naturagune bezala zaintzea

- *Esan behar dut, gune horretan oreka duen ekintzarik ez bada egiten, esplotaturiko gune bat bihurtu daiteke. Kontu handiarekin egin behar da, ez dut beste portu deportibo baten antzerakoa.*
- *Espazioaren zaintza bermatzea eta esku hartze txikiak egitea herritarrek paisaiaz gozatu ahal izateko (garbitasuna, eserlekuak...). Inguruaren potentzialitate handiena paisaia naturala eta honen esku hartze formal txikia dira nire ustetan (urbanizazio handi eta agresiborik gabe).*
- *"Tonpoie dauen moduen ondo dau. Aldiskako bedar ebaketak ugaritutie ondo egongo zan, baie bide edo beste hobekuntzeri begiratuten batzagu eta hobetzie plantieten bada; gaur egun dakon esentxidxe galduko dau eta jente pilaketak egongo lekidiez... Naturak ez dau biar gizonan hobekuntzarik, bestela ya ez da natura".*

Haurrentzako tokiak

- *Bainatzeko guneak, Umeekaz lasai egoteko guneak.*
- *Umeak kontuan edukitzea. Dibertigarria izan daitekeen gune moduan kontuan edukitzea.*
- *Ibilbideak.*
- *Ibilbideak eta bainurako guneak egokitzea.*

- *"Zumaian antzeko kostako bide bat egin beharko litzateke. Kostaldetik Aritzatxuraino. Lo egiteko aukera? Miradore bat? Bideak hobetu. Ura eta bestelako zerbitzu minimoak jarri."*

Bestelakoak

- *Askotan txakurrak egoten dira, lekua egokitu beharko litzateke eurentzat.*
- *"Oinezkoentzat soilik, adinekoen egon eta pasealeku zabala-lasaiak; heriotza agurrak egiteko gune egoki bat era berean lur grada erakerabiliak, aprobetxatu antzerki eta musikaldi formatu txikikoak egitekoak. Auto gabeko gunea, patinetan edo bizikletaz ibiltzekoak sortu (bidegorri eta berdeak). Areto estali eta itxiak inguruagaz bat egindakoa bilgune multifuntzional eraikin batez."*
- *Turismoa.*

ERABILERA ETA MUGIKORTASUNA

Bururatzen al zaizu bestelako aukerarik inguruko erabilera eta mugikortasuna erraztu eta sustatzeko?

Oinez ibiltzeko bideak

- *Bide estuak hobeago...ez du galdu behar indomabilidade hori.*
- *No creo que sea lo mejor hacer un recorrido para bicis sino para un paseo a pie agradable*
- *Bide bat Aritzatxuraino.*
- *Tonpoitik Aritzatxurantz doan oinezko bide bat oso interesgarria litzateke, beti ere horren jarraitasuna bermatuko balitz Matxitxakorantz. Ibilbide zati isolatu bat egiteak ez dauka zentzu handirik ingurune txikia baita. Garrantzitsua litzateke bidea paisaiarekiko eta inguruarekiko agresiboa ez izatea (txikia, material naturalak, orografiara egokitzen dena etab).*

Bestelakoak

- *Adinekoentzat egon eta pasea gune lasai eta zabala. Auto gabeko gunea. Patinetan eta bizikletaz ibiltzeko ibilbide egokiak (bidegorriak + berdeak). Heriotza agurrak egiteko gunea; antzerki eta musikaldi formatu txikikoak ikustokia eraiki lur grada naturala aprobetxatuta; inguruaz bat egindako eraikin itxi eta estalia eta multifuntzionala. Kirola tresna egokituak pasea ibilbide bazterretan edozeinek erabiltzeko modukoak jarri.*

SEGURTASUNA ETA IRISGARritasuna

Bestelako aukerarik bururatzen al zaizu inguruaren segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko?

Ekipamendu gehiegi ez jartzea

- *Cuidado que poner excesivo equipamiento como bancos, papeleras porque la gente es una cerda y estropearía todo el entorno.*
- *Cuidado con poner exceso de mobiliario urbano porque la gente lo degrada muchísimo. Deberíamos mantener el carácter agreste y salvaje de la zona, pero con unas normas y eliminando los asentamientos y construcciones ilegales o fuera de ordenación.*

Seinaleztapen-sistema

- *Para mi gusto no es compatible naturaleza y modificarla con iluminacion, pero si mejorar la seguridad o avisar que algunas zonas son peligrosas para pasar o andar. Cada uno decide si pasa o no.*

Seinaleztapen- eta argiztapen-sistema

- *Argi eta seinalizazio mailak egokitu beharra daude baina, berriztatze horiek mugatuak izan beharko lirateke ingurua ez degradatzeko; masifikazioa turistiko edo argitasun gehiegizko batez ekosistema ez izorratzeko. Hau da, berriztatze jasangarria izan beharko luke biodibertsitate eta erreserba naturalaren zaintza ondo bermatute.*

Bestelakoak

- *Eskailerak ondo daude baina beste guztia falta da. Minimo bat.*

PAISAIAREN KALITATEA

Bururatzen al zaizu bestelako aukerarik inguruko paisaiaren kalitatea sustatzeko?

Informazio-etaulak

- *Poner miradores con paneles explicativos ligados a los murales tan chulos pintados en la Tala y a la historia de Bermeo.*
- *Un panel informativo de la fauna y flora que tenemos en el entorno.*

Naturagune bezala zaintzea

- *Biodibertsitatea eta erreserba naturala babestua; etorkizunari begira jasangarritasunaz egitea ezinbestekoa da.*

ESPAZIO PRIBATUA

Bururatzen al zaizu bestelako aukerarik espazio publiko eta pribatuen arteko haustura txikiagotzeko eta inguruko espazio publikoen erosotasuna hobetzeko?

Espazio publikoa arautzea

- *La gente encuentra un espacio libre; pone su cercado y se hace la huerta con su barbacoa, sus perros... No puedes disfrutar del entorno tan bonito*
- *Eliminar los asentamientos y construcciones ilegales y que los municipales hagan cumplir las ordenanzas respecto a los perros.*
- *Arazo bat izan leike baina herriarenak badira lurzoru hoiek herriarentzako berreskuratu beharko lirateke.*
- *Me gustaría que no hubiera huertas, con lo cual desaparecerían los insoportables ladridos de los perros por las noches.*
- *Eraikinen neurriak, egitura estilistikoak eta abarmugatu.*
- *Legez kanpo egindakoak kendu.*

Egungo egoera iraunaraztea

- *Berrizgarria da inguru honetan lur publiko eta pribatuaren banaketa lauso, hau da, espazio asko pribatua izateak ez du lekuaz gozatzea ekiditen. Itxiturak arinak dira eta paisairen ikuspegi orokorra izatea ahalbidetzen dute. Aldi berean, jabetza pribatuak egoteak aktibitatea bermatzen du lekuan eta ondorioz segurtasun pertzepzioa baita, eta bateragarria da espazio publikoaren hobekuntzarekin. Aberasgarria da lur pribatu eta publikoak tartekatzea.*

Animalien egoera eta horiek egiten duten zarata aztertzea

- *Se debería revisar las condiciones que viven los animales y la cantidad que hay. Los perros hacen mucho ruido y es molesto durante la noche. Además los sueltan y se pasean solos los perros.*

Animalien jabeen erantzukidetasuna ingurua zaintzerakoan

- *Gune pribatuak behartuak daude inguruaren zaintzaz; adostasunak lortuta posible bada, jorratu behar den lana da. Oinarrizko eta gutxiengo baldintza batzuk erabaki behar dira; eskubide eta betebeharrak pribatuak erabaki eta bermatu beharra dago; hori bai, beti inguru giro kolektiboaren aldekoak izan beharko lirateke.*

Bestelakoak

- *Me parece muy peligrosa la orientación de estas preguntas. No hay txabolismo ni mucho menos y los perros de las txabolas no dan sensación de inseguridad. Lo que igual os debería de preocupar es la situación de esos animales y no si la gente que quiere pasear igual que por el puerto no le gusta el ruido.*
- *Aritzatxu eta tonpoia soloz beteta dagoz.*